

Berriketan

MANOLO PASCUAL • Danbor nagusia

25 urtez danborradaren aginte makilaren jabe





adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

www.facebook.com/adatsileak
@adatsileak



URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA



Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52

Urlo

Aholkularitza
Komunitateen
kudeaketa
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • urlo@urloasesoria.eus
Sokagin, 2 behe. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA



Zumardi
pentsioa

Tel.: 943 19 23 68
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com



IZEARBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

k
kutxabank



"maite ditut nire/gure baserrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Telf: 943 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com

Odontologoa
MAITENA ARRIZABALAGA

HORTZ KLINIKA

Gipuzkoa Kalea 20, Zarautz

Odontologoa
NORA UNZETABARRENETXEA

nn

943 830 424 - 653 921 712

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behe - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

atari
INMOBILIARIA

943 19 22 63
atari@atarideba.com
www.atarideba.com



BERRIKETAN 308

2025eko uztaila

Azaleko irudiaren egilea:
Nerea Bedialauneta Alkorta

AURKIBIDEA



8 KOLABORAZIOA
Zuhatza Euskara
Elkarteari aipamena eta
aitortza egin nahi izan
dizkio Iñaki Elosuak



12 AGINTALDI ERDIA
EAJ, EH Bildu eta Orain
Debako bozeramaileek
agintaldi erdiko
balorazioa egin dute



16 KOPRAIAK
Abuztuaren 1etik 6ra
ospatuko dira
Itziarko festak;
egitaraua zuen eskura



20 ELKARRIZKETA
25 urteotako ibilbideaz
mintzo da Manolo
Pascual danborradaren
zuzendaria



26 ELKARRIZKETA
Alejandro Morcillo
eta Aiora Antolin
Debako hondartzako
sorosleekin solasean



28 AGENDA
Datozen asteotan egingo
diren jarduerak eta
ekimenak jaso ditugu
atal honetan

Jarrai gaitzazu!



berriketan.eus



LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALAK



Gipuzkoako Foru Aldundia

ARGITARATZAILEA

Zuhatza Euskara Elkarte
HELBIDEA
Ifar kalea, 12 behe. 20820 (Deba)

TELEFONOAK

943 19 13 83 / 632 04 33 22

HEDABIDEAREN E-MAILA

berriketan@berriketan.eus

ELKARTEAREN E-MAILA

koordinatzailea@zuhatza.com

ERREDAKZIOA

Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta
eta Alex Turrillas

KOORDINATZAILEA

Izaro Aulestiarte

PUBLIZITATEA

Joseba Escudero eta Alex Turrillas
LOGOTIPOAREN DISEINUA

Iñaki Elosua

MAKETAZIOA

Maku Oruezabal

TIRADA

1.400 ale

MAIZTASUNA

Hilabetekaria

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

LEGE GORDAILUA

SS/246/2009

ISSN: 2171-7656

Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@berriketan.eus helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

Gutunak



Mikel Oñederrari

Zure barreak denboraren kurban amaitu dira eta hemen geratzen gara itzaletan, zure urratsen oihartzuna entzungo bagenu bezala eta bazter guztietan zure besoa faltako balitz bezala.

Betikoen adiskide, eskatu gabe eman zuena, neurririk gabe eskaini zuena.

Ipar haizean zen, non esentzia utzi zenuen eta lurreko harri guztietan zure oinatzek irauten dute.

Zure herriak, gure etxeak, zure izena du grabatuta, bere kaleetan beti ibiliko bazina bezala.

Euskal Herria bularrean, sustrai sendoen odola, sinplea eta sakona maitatzen irakatsi diguzu eta topa guztietan eta partekatutako abesti guztietan zure izpirituak gora egiten jarraitzen du eta kontsolatzen gaitu.

Laster alde egin zenuen, lagun, baina hain laster... Baina hemen gure artean osorik geratzen zara, zure barreak haizearen oihartzunean itzuliko balira bezala, inoiz joan ez bazina bezala.

Marian Larrañaga

'Berriketan' aldizkariaren hurrengo alea irailean

Esku artean daukazuen ale honekin agurtzen du *Berriketan* herri aldizkariak ikasturtea. Abuztuaren hasieran oporrak hartuko ditugu erredakzioan, baina Zuhatza Euskara Elkartean ere; hori dela eta, abuztuaren ez dela hilabetekaria kaleratuko gogorarazi nahi dizuegu. Hurrengo alea, paperezko edizioan, irailaren amaieran plazaratuko dugu, baina *berriketan.eus* web-gunea elikatzen jarraituko dugu datozen egunotan.

Irailaren hasieran itzuliko gara lanera eta orduan izango dugu berriz ere elkarren berri, hitzordua jarrita baitugu, besteak beste, Euskal Jaian. Ordura arte, beraz, ondo izan eta, batez ere, gozatu, baina ez ezazue euskara oporretara bidali! Badakizue, guk geuk nahia-goe euskaraz!

Zuhatza Berriketan



AITOR
TABERNA

Lersundi kalea 25




Seven Clovers
Irish pub
Eskerrik asko!



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maizpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)





Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095



LUKAX DORRONSORO

Ezkutuko gorespena

Urtea bete da oraintsu Koldobika Jauregi zendu zela. Hori dela eta, itsasertzeko txoko polit batera joan zait gogo. Ederra izaten zen Sorozabal pasealekuan eskailera gutxi batzuk jaitsi eta itsasoari gertu-gertutik diosala egitea; bertako eserlekuan eseri eta harekin solasean patxadaz jardutea, noiznahi.

Zezena eta gizakia; gizakia edo zezena? Zein zeinen gainean, alboan edo barruan oso argi ez dela. Gorputz-adarrak itsasoari zabal, zer edo zer eskainiz, edo eskatuz (ohikoagoa). Jauregik omenaldia egin nahi izan zion dirudienek Sorozabali bere eskulturarekin. Euskal eta espainiar musikari egindako ekarria aintzatetsi nahi zion haren bitartez, eta kulturak sormena eta identitatea sustatzen dituela adierazi.

Baina lan hori aspaldi ez dut neure begiz ikusi. Itsasoa azpitik jaten ari zaio bere oinarria, eta arriskutsua da, antza, guretzat bertaratzea. Ez berarentzat han bizitzea?

Ezin gehiago herritarrok lekuaren magiaz edo Jauregiren lanaz gozatu. Ezin aurrerantzean omenezko omen zen lanak bere funtzioa behar bezala bete.

Badirudi Jauregik berak aukeratu zuela eskulturaren kokalekua. Itsasoaren bizilagun jarri nahi zuen betirako, akaso horrela soilik borobiltzen delako bere zentzua, ez dakit. Baina lehengo auzo bizia ez da oraingo hau, eta horregatik galdetzen diot sarri nik neure buruari: behin-behinekoa ia behin betiko bihurtzen deneko denbora tarte horretan, ez al dago Jauregiren lanarentzat bizileku egokiagorik? Alaiagorik?

"Ezin gehiago herritarrok lekuaren magiaz edo Jauregiren lanaz gozatu. Ezin aurrerantzean omenezko omen zen lanak bere funtzioa behar bezala bete"



ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia - Osteopatia
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Podologia
- * Dietista

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



1910

Bainurako kasetak eta txurreria

Ez dakigu nor den argazki honen egilea, baina ustez 1910. urte inguruan ateratako irudia da. Egun euritsua aukeratu zuen argazkilariak. Lehen planoan, idien laguntzaz bainulariak uretan sartzeko erabiltzen ziren kaseten ilara luze bat azaltzen da eta alboan hainbat *baineru* (edo bainuzain) eta haur ageri dira. Ezkerrera begiratzeko gero, aldiz, Deba eta Zarautz arteko trenbide tartearen ordurako amaituta eta zabalik zegoela ohartuko gara.

Bainurako kaseten atzean, atentzioa ematen du egurrezko etxola handi batek, Esparza familiaren *Gran Churreria Riojana*-k, hain zuzen. Hondartzako gaur egungo aparkalekuaren erdian kokatuta zegoen eta bertan, uda partean, freskagarriak eta izozkiak zerbitzatzen zituzten, baita ospetsu egin zen txokolatea txurroekin ere. Urte batzuk beranduago, 1932an, familia berak eraikin eder bat altxatu zuen haren ondoan, Manuel de Cardenas arkitektoaren zuzendaritzapean; hasieran izen berari —*Gran Churreria Riojana*— eutsi zion arren, gerora *El Casino* izena hartu zuen.

Argazkiari begiratuta, ikus genezake oraindik ere ez dutela hondartzaren zabalgunea egin eta ez dagoela eraikinik lursail horretan. Atzealdean, Itxas-Ertz futbol zelai zaharreko ateak azaltzen dira eta itsasadarraren beste aldean hainbat etxe daude; desagertuta daude etxe guztiak, Bustiñaga baserria izan ezik.

Alex Turrillas Aranzeta



ITZIAR ARANA

Beroak kalte

Uda sasoia iritsi da eta horrekin batera hor ditugu hondartzan marradun koloretako toldoak, sorosleak eta, nola ez, surflariak! Barkatuko didazue, baina urtetik urtera surf egiten dutenen kopurua handitzen ari den neurri berean, sorosleek gero eta tarte txikiagoa eta mugatuagoa ezartzen dute itsasoan bainu bat lasai hartu nahi dugunontzat. Triste da Itxas Gain parean bizi eta bainu bat hartzeko *torreta* parera joan behar izatea. Konturatuko zineten bezala, gaiak berotu egiten nau; badirudi itsasoa ur-kirolak eta negozioa egiteko bakarrik dela, ezin al da itsasoa egokiago partekatu? Gazteago ginenean, sorosleak etorri aurretik eta joan ondoren aritzen ziren surfean, eta orain? Badirudi bainua lasai hartzeko horretara gonbidatzen gaituztela... Nola aldatzen diren kontuak hain denbora gutxian...

Horrez gain, itxura denez, itsasoa txiki geratzen ari zaigu. Izan ere, gero eta sarriago ikusten ditugu haurrak dutxetako urarekin edo hankak garbitzeko iturriari emanez jolasean. Ez dakit ez ote naizen azkarregi zahartzen hasi, horrelakoak ikustean ulertu ezinda gelditzen bainaiz. Ez dakit Agenda 21 edo zer den Luzarok eta udalak orain ikasleekin lantzen dutena, baina ikasitakoak beroarekin desegin eta desagertzen direla dirudi.

Nik uste beroak niri bakarrik ez, beste askori ere kalte egiten diela. Hortaz, freska ditzagun buruak eta har dezagun arnasa sakon, haitz handiari begira, gurean baino aukera paregabeagorik leku gutxitan dago eta!

"Konturatuko zineten bezala, gaiak berotu egiten nau; badirudi itsasoa ur-kirolak eta negozioa egiteko bakarrik dela, ezin al da itsasoa egokiago partekatu?"

Arteondo
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

Kolegiatu zkia.: 20001123

Amaia ✱ Esnaola
ODONTOLOGIA

Fermin Calbeton 19- 3 ezk. Eibar
943 20 72 17 | 660 42 28 08
amaia@esnaolaodontologia.com



Aipamena eta goraipamena Zuhatza Euskara Elkarteari

IÑAKI ELOSUA • Zuhatza elkarteko zuzendaritzako kide ohia

Aldizkari honetan idatzi nuen azken aldian aurreratu nuen bezala, aspaldian banuen Zuhatza Euskara Elkarteari buruz hitz batzuk esateko gogoia. Zuhatzak merezi du aipamena eta goraipamena egitea eta euskararen alde egin duen eta oraindik ere egiten duen guztia orrialde oso batean nabarmentzea.

Garai batean, eskola orduak bukatu eta kalera irteten zirenean, ikastolako haurrak erdaraz aritzen ziren barra-barra... Eta argi ikusi zen Deban euskara talde bat sortzeko beharra. Talde haren bultzatzaile sutsuak izan ziren Amaia Zinkunegi eta Joxemari Altzibar bera ere... Eta gogoan dut 1997ko gabon aurreko astean Nagore Dorronsorok, Ina Oiartzabalek, Sabino Aizpuruak eta nik neuk erakunde berria Kultur Elkartean aurkeztu genueneko egun hura. Urduri egon arren, oso pozik gelditu ginen aurkezpenean jende mordoak bildu zela ikusita. Udalaren babesarekin sortu zen Zuhatza, handik aurrera lanean jarraitzeko helburuz.

Elkartek 1997tik gaur egun arte egin edo bultzatu dituen ekintza batzuk ekarri nahi nituzke gogora; agian ez ditut guztiak gogoratuko, baina bai haietako asko.

Adibidez, zalantzarik gabe, Euskal Jaiaren sustatzaile sutsua izan da beti Zuhatza; gerora indar handia hartu duen herri bazkariaren antolatzailea da eta festa iragartzeko kartel lehiaketa ere egin du urte askotan. Aipatu beharra dago, bestalde, urtero-urtero Olenzeroren eta Mari Domingiren jaialdia ere Zuhatzak bultzatu duela herri honetan, jende askoren laguntzaz.

Ikasleen literatur lehiaketek gain, ezin aipatu gabe utzi haurrentzako bestelako ekitaldi batzuk. Izugarritzko arrakasta izaten zuten, adibidez, uda partean antolatzen genituen ikuskizunek. Eta, gainera, Kolore Anitz aisialdi taldea ere euskara elkartearen babesean sortu zen.

Korrikaren bultzatzaile nekaezina izan da Zuhatza; urte askotan eginkizun guztiak bere gain hartu eta elkarteak beti eman dio izugarritzko laguntza ekimenari. Eta beste gauza askotan ere antolatzaile edo laguntzaile fina izan da beti elkarteak. Praileaitzen aldeko hitzaldiak, memoria historikoaren aldeko ekintzak, musika ekitaldiak, bertso jaialdiak —Amets Arzallus txapelduna ere bertan genuela—... Oso luzea da zerrenda, izugarria. Era berean, bereziki nabarmentzekoak dira urte osoan zehar euskara ikasten dabiltzan mintzalagunak eta, nola ez, *Berriketan* aldizkaria bera ere.

Bi hamarkadatik gora

1997tik 2020ra arte aritu naiz ni elkartean, zuzendaritzan, diruzaintzan eta beste hainbat zereginetan. Zuhatza euskara berpizteko helburuz jaio zen eta neurri handi batean herrian euskararen erabilera indartzea lortu duela esango nuke. Sarritan aipatu izan digute asko egin dugula euskararen alde eta nik ere hala uste dut; askotan ez da behar bezala baloratzen, baina elkarteak lan handia egin du, egiten du eta aurrerantzean ere horretan jarraituko du, garai bakoitzera egokituz betiere.



Elkarteko kideen argazkia (1997).



Literatur lehiaketaren sari banaketa ekitaldia (2018).



JON AMUTXASTEGI

Amato

Zaintzeko eskubidea, sistemaren arabera, familiara mugatzen da. Harreman monogamo eta ezkonduaren tresna, eredu normatibotik kanpo sortzen diren laguntasun, maitasun eta harremanei ukatzen zaiena. Hogei urte pasatu dira Espainiako Estatuan sexu bereko pertsonen ezkontzak onartu zirenetik. Agian, bada garaia instituzio hau zalantzan jartzeko, bizitzeko eredu berrien inguruan hausnartu, eta horiei beren lekua eskaintzeko.

Familiak hartzen gaitu hasiera batean, baina gutxira bilatzen dugu sostengua gure lagunengan, bikotekidea topatu arte. Duela gutxi nire lagun bat ospitaleratu zuten. Ez zuen familia gertu, ez zegoen ezkontuta, eta, beraz, ezin izan genion lagundu. Ezin izan genuen zaindu. Zer aurpegi jarriko lidake nagusiak lagun batengatik zaintza-baimen egunak eskatuko banizkio? Amatonormatibitatean bizi gara; harreman eredu erromantikoaren inguruan sortu dira legeak, moralak eta zaintza. Eta maitasun erromantikoa den asintota horren bila goazen honetan, beti eutsi izan gaituen lagunak, beti eutsi izan gaituen sareak, lehentasunetan behera egiten du.

Harremanen hierarkian harpidetza premium bat da ezkontza, maitasun-kapitala metatzeko pribilegio gisa funtzionatzen du, benetako zaintza-sare askoz zabalago eta anitzagoak sistematikoki errefusatu. Agian, maitasuna kolektiboan ulertzeko garaia ere bada. Guraso bakarreko familiak, baztertuak izan diren LGTBIQ+ pertsonak, pertsona migratuak, monogamiatik at bizi direnak... Pertsonak beste bizitzeko forma izanik, zergatik daude bizi eredu horiek bigarren maila batean?

"Bada garaia instituzio hau zalantzan jartzeko, bizitzeko eredu berrien inguruan hausnartu, eta horiei beren lekua eskaintzeko"

ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneraiaturlan@iturlan.com



Debatek
INFORMATIKA

Aholkularitza
Produktuen salmenta
Zerbitzu teknikoa

747 42 39 01

Debatek_



ONDARGAIN
TXIRINGITUA

Gosariak, plater konbinatuak,
pizzak, hamburgesak eta
zuzeneko musika!

Egunsentiaren bila

Arg.: PEDRO EGIA 'TXOKO'

Gustuko dut argitu aurretik jaiki eta
egunsentia kamerarekin harrapatzea.
Argazki hau 2023ko apirilaren 8an
egin nuen, Ondarroako Arrigorri
hondartzatik, eta atzealdean
Saturrarango Eskilantxarri haitza
ikus dezakegu. Argi dago goiz hartan
ez nintzela izan egunsentiari argazkia
ateratzen saiatu zen bakarra.





“Martxan dauden proiektuak sendotu eta hurrengo urratsetan zorrotz lan egin nahi dugu”

ALAZNE TXURRUKA • Alkatea (EAJ-PNV)



Ekainean bete ziren bi urte Debako alkatetza hartu zuenetik eta agintaldi erdiaren balorazio "guztiz positiboa" egin du Alazne Txurrukak. EAJ-PNVk eta Orain Debak osatutako gobernua "arduraz" lan egin duela eta Gobernu Planean jasotako proiektu gehientsuenak abian edo amaituta daudela nabarmendu du. Nolanahi ere, oraindik egiteko asko dagoela aitortu eta lanean jarraitzeko konpromisoa berretsi du alkate jeltzaleak, betiere "herri kohesionatuagoa, inklusiboagoa eta aukera gehiago dituen" eraikitzeko helburuz.

Agintaldi erdian gauden honetan, zelan baloratzen duzu orain arteko ibilbidea? Zer irakurketa egiten duzu?

Balorazioa guztiz positiboa da: herritarrekiko konpromisoa argia dugu eta ez diogu egun bakar batez ere lan egiteari utzi hori betetzeko.

Gure Gobernu Planeko 44 ekin-tzetatik 40 abian edo amaituta daude. Pertsonak erdigunean jarri ditugu eta arduraz lan egin dugu Deba udalerri atseginagoa, inklusiboagoa eta etorkizunera begira dagoena izan dadin.

Zer izan da zailena?

Zailena, zalantzarik gabe, hainbat lan-geruza aldi berean kudeatzea izan da. Alde batetik, azken legegaldian alor ugari gelditu ziren geldirik edo aurrerapen errealik gabe eta horiek hutsetik abiatzea tokatu zaigu, lehentasunak zehaztea, planifikatzea eta gauzatzea. Eta, bestetik, hori guztia bat etorri

da premiazko erantzunak eskatu dituzten ustekabeko erronkekin.

Beste erronketako bat herritarren behar eta itxaropen desberdinak kudeatzea izan da. Gobernatzeak erabaki konplexuak hartzea eskatzen du, eta erabaki horiek ez dira beti guztien gustukoak, baina beti saiatu gara debarrak entzuten eta erantzukizunez jokatzeko.

Eta zer aberasgarriena?

Niretzat, bidaia honetako onena debarrekin partekatzea da. Elkarrekin lan eginez, Debarako benetako hobekuntzak nola lortzen ditugun ikustea eta partekatzea.

Kasu honetan udal gobernu taldearen, teknikarien eta herriko eragile askoren konpromisoa ere azpimarratu nahi dut, ahalegin, gogo eta ilusio guztia jartzen baitute Deba aurrera ateratzeko.

2023-2027 agintaldirako osatu zenuen Gobernu Planean jasotako 44 ekin-tzetatik 40 abian edo amai-

tuta daudela azpimarratu duzue. Pozik zentzu horretan?

Noski, pozik gaude, baina ez gara horrekin konformatzen; horregatik, egunez egun lanean jarraitzen dugu Gobernu Plana guztiz bete arte, eta, are gehiago, baita bertan jasota ez dauden proiektu berriak aurrera ateratzeko ere. Badakigu asko dagoela egiteko eta konpromiso berarekin jarraituko dugu lanean.

Garatutako proiektu estrategikoen artean zeintzuk nabarmenduko zenituzke?

Zaintza Ekosistema proiektu garrantzitsuenetako eta eraldatzailerenetako bat da. Bi urte daramatzagu zaintza eredu partekatua bultzatzen, zaintza erantzukizun kolektiboa izan dadin. Europako Next Generation funtsak jasotzen dituzten proiektuak ere nabarmen-tzen ditut, hala nola pasealeku estalia edo Gudarien Plaza eraldatzea, argiteria publikoa berritzea edo tu-



“Badakigu asko dagoela egiteko eta konpromiso berarekin jarraituko dugu lanean”

“Batzuetan iritzi desberdinak daude, eta hori normala da, baina horrek ez du esan nahi lankidetzak falta dagoenik”

rismoaren digitalizazioa. Eta, jakina, aurrerapen garrantzitsuak egin ditugu mugikortasunean (Irisgarritasun Plana edo autobus-zerbitzu berriak, esaterako) eta etxebizitzan ere, Amillagaren garapenarekin. Osio garatzeko lanean ere ari gara. **Agintaldia bukatzeko falta diren bi urteetan, zeri emango diozue lehentasuna? Zeintzuk izango dira hurrengo urratsak?**

Martxan dauden proiektuak sendotu eta hurrengo urratsetan zorrotz lan egin nahi dugu: HAPO berria, kultur ekipamendu berri baten inguruko lanketa, udal ordenantzen berrikuspena edo udalerraren azterketa sozioekonomikoa. Hori guztia pertsonen eguneroko arreta alde batera utzi gabe.

Itxuraz behintzat, orain artean oposizioarekin ika-mikarrik handienak eragin dituzten gaiak garraio publikoa eta etxebizitza izan dira. Hori islatu dute hedabideetan kalera-

tutako akusazio edota irakurketa politikoez...

Normala da eztabaida politikoa egotea, eta ez zait gaizki iruditzen. Baina zintzoak izan behar dugula uste dut. Garraio publikoari dagokionez, 2026ko hasierarako trenen maiztasuna 30 minututrokoa izango den konpromisoa lortua dugu Eusko Trenbide Saretik.

Autobus zerbitzuak hobetzeko hainbat aldaketa eskatu eta egikaritu dira, herritarren beharrei erantzun nahian. Eta hobetzeko proposamen gehiago ere egin ditugu.

Etxebizitzari dagokionez, gobernu honentzat lehentasunezkoa den Etxebizitza Plana garatzen ari gara, eta, gainera, modu parte-hartzailean lan egin da. Badakigu erronka konplexua dela eta ez dela bi egunetan konpontzen, baina erabaki zehatzak hartzen ari gara aurrera egiteko. Udalerrria tentsio gune izendatzeko pausoak ere emango ditugu.

Azken Debaberri aldiakarian, EH Bilduk udal gobernuaren “elkarlaneanako ezintasuna” salatu du, bai koalizioarekiko, bai herriko eragile ezberdinekiko, bai informazioa partekatze orduan... Zer deritoxozue?

Ez gatoz bat baieztapen horrekin. Lankidetzak ez da eslogan bat bakarrik: guretzat politika egiteko modu bat da. Lanerako espazioak, azalpenak eta bilerak partekatu ditugu. Batzuetan iritzi desberdinak daude, eta hori normala da, baina horrek ez du esan nahi lankidetzak falta dagoenik.

Agintaldia amaitutakoan zer nolako herria ikusi nahi zenuke?

Herri kohesionatuagoa, inklusiboagoa eta aukera gehiago dituen erai nahi dugu. Herritarrek zaintzen dakien udalerrria, pertsonak erdigunean jartzen dituen eta etorkizunari anbizioz begiratzen diona, baina baita erantzukizunez ere. Hori da egunero mugitzen gaituen helburua.

“Egiteko modu partekatuagoa eskatzen diogu udal gobernuari”

GILEN GARCIA • EH Bilduko bozeramailea



Indar bozkatuena izan bazen ere, alkatetza galdu eta bi urteotan oposizioan egotea tokatu zaio EH Bilduri. Koalizioak egin duen lanaren balorazio positiboa egin du Gilen Garciak, baina aitortu du "sentsazio gazi-gozoa" ere badutela. Elkarlanerako deia egin dio udal gobernuari.

Nola definituko zenuke agintaldi erdi hau? Zer balorazio egiten duzu?

Gure taldeak bi urte hauetan egin-dako ibilbideaz balorazio positiboa egiten du, baita nik ere. Sentsazio gazi-gozoa ere badugu, ordea. Herriarrek EH Bildu lehen indarra izatea erabaki zuten hauteskundee-tan, baina hori ez zen nahikoa izan gobernua osatzeko. Posizio berrira egokitzea tokatu zitzaigun orduan eta esan beharra dago ez dela posizio erraza izan. Udal gobernu berriak gugandik distantzia markatu nahi izan zuen hasieratik, egiteko moduetan sumatu dugu batez ere. Aurreko agintaldian gainditutako hainbat egiteko modutara bueltatu gara, zoritxarrez. Elkarlana eta ikuspegi partekatuak ezinbestekoak izango dira udalerrri hau denon artean aurrera ateratzeko eta gure ekarpena hor egingo dugu.

Debaberrin ere udal gobernuaren egiteko modua kritikatu duzue, hain justu, "elkarlanerako ezintasuna nabarmena" izan dela aipatu. Uste dugu begi bistakoa izan dela alor ezberdinetan. Agintaldi hasie-



ratik gabeziak identifikatu genituen informazioa partekatzeko orduan eta erabakiak hartu eta komunikatzeko moduan. Elkarlanerako ezinbestekoa da elkarrekiko aitor-tza eta besteak iritzia emateko espazioa bermatzea; kasu honetan, udal gobernari dagokio gidaritzan lan hori, baina deserosoa zaiela dirudi, eta espazio horien alde borrokatu behar izaten dugu.

Zeregin behar luke gobernuak lehen-tasunez? Zer eskatuko zenioke?

Gure udalerrriak hainbat erronka po-tolo ditu, gobernuan dagoen alder-dia edozein dela ere, eta hori nahiko argi geratu zen aurreko agintaldian. Beraz, egiteko modu partekatuagoa eskatzen diogu lehenik eta behin.

Horrez gain, tentsio eremu izen-dapena gauzatzea, etxebizitza plana onartzea eta HAPO berria lantzen hastea dira lehentasunak.

Kulturgunearen eta ludotekaren gaiak ere jorratu nahi ditugu eta horretarako tartea eskaini behar-ko luke udal gobernuak.

Zeintzuk dira EH Bilduren ildo na-gusiak orain? Eta non jarri nahi du indarra datozen urteotan?

Etxebizitza politika da EH Bildu-ren ildo nagusietako bat, baina udal mailan ditugun eskumenek beste maila bateko politiken eskutik joan beharko lukete.

Mugikortasunean, gure udale-rriaren gabeziak gainditzeko eragi-ten jarraituko dugu. Eta zaintzaren alorrean abiatutako prozesuan ere aktiboki parte hartzeaz gain, gure ekarpenak egin ditugu eta horiekin aurrera egitea espero dugu.

Ezinbestekoa iruditzen zaigu uda-lerrri ikuspegian sakontzea eta bene-tako elkarlan dinamika sortzea, hau da, Deba, Itziar eta landa eremuko herritar guztiak barne bilduko di-tuen elkarlan estrategia bat izatea. **2019tik 2023ra alkate izanda, nola ikusten dira gauzak oposiziotik?**

Gauzak ezberdin ikusten dira po-sizio honetatik. Alkate zarenean, mendi baten gainean bakarrik edo zurrumbilo baten erdian bazeunde bezala bizi duzu herrian gertatzen den oro, eta zaila da abstrakzio ari-keta egitea eta zure burua kanpotik ikustea. Oraingo perspektiba lasaia-go da, pausatuagoa, gauzak beste gogoeta maila batekin aztertze-ko aukera ematen duena.

“Talde batua osatuz, herri honentzat aldaketa nabarmena lortzen ari gara”

ISIDRO ARISTI • Orain Debako bozeramailea



Isidro Aristik oso modu positiboan baloratu du agintaldi erdia. EAJrekin akordioa egin izana "garesti" atera zela eta hasiera "oso zaila" egin zitzaiola onartu du. Nolanahi ere, herriarentzat "aldaketa nabarmena" lortzen ari direla eta denborak "arrazoia" eman diola nabarmendu du.

Nola baloratzen dituzu agintaldiko bi urte hauek?

Oso modu positiboan. Herriaren garapenerako proiekturik gabeko agintaldi batetik gentozen. Ikuspegi eta ideia berriak emateko beharra sumatzen genuen, udal kudeaketa-ri bultzada bat emateko eta egoe- ra geldi horretatik ateratzeko gure etorkizunerako ezinbestekoak diren gaiei helduz.

Gobernu akordioa egin zenuten EAJrekin. Gustura orain dela bi urte hartutako erabakiarekin?

Hainbat alderditako pertsonen osatutako udal taldea gara. Nahiz eta EAJrekiko ideologia desberdina izan, udalean zeuden bi alderdiekin hitz egin ondoren, haiekin gobernu akordio batera iritsi ginen; programa bateratu batean oinarrituta eta gure udalerririk behar zituen hobekuntzak egiteko lehentasunarekin egin genuen akordioa.

Akordio horren baitan, Gizarte Politika eta Berdintasuna eta Turismo batzordeen ardura hartu zuen Orain Debak 2023an. Nola baloratzen duzue arlo horietan eginda-



ko lana? Zer erronka nagusi izan dituzu esku artean?

Gizarte Zerbitzuetan eta Berdintasunean zerbitzuak mantentzen dira eta eguneko zentroan hobetuz doaz, laster asteburuetan eta jaiegunetan ere irekiko baita. Arbil berritu da, taberna ireki da eta erretiratuak etxea 60 urtetik gorakoentzako jarduera anitzeko elkarte sozial bihurtu da, zahartze aktiboaren eta nahi

ez den bakardadearen aurkako borrokaren alde lan eginez. Bestalde, Debako kulturarteko programako jarduerak egin dira etorkinekin, besteak beste, udalaren ongietorria, giza liburutegia, kulturarteko gastronomia eta inklusio-mahaia. Iaz, 2024an, Debako Udalak eraso matxisten aurkako protokoloa onartu zuen. Hondartzako eraso sexisten aurkakoa egin da aurten eta udalaren berdintasunerako barne-plana onartuko da.

Turismoko lehendakaritza 2024an utzi genuen eta batzorde horretan lanean jarraitu genuen, Debako herriarentzat hain garrantzitsua den sektorea bultzatuz.

Zeintzuk izango dira Orain Debaren lehentasunak hurrengo bi urteetan? Zure ustez, zein proiektu izango dira estrategikoak?

Kudeaketa eta zerbitzuak hobetzen jarraitzea, kiroldegia ondoan adinekoentzako ekipamenduaren eraikuntza amaitzea eta Osion etxebizitza sozialak eraikitzeak behin betiko urratsak ematen hastea izango da Orain Debaren lehentasuna.

Zure taldeko ordezkari bakarra zara eta lehen aldia duzue udaletxean.

Nola daramazu maila pertsonalean?

Agintaldiaren hasiera oso zaila izan zen, EAJrekin gobernu taldea osatzeko erabakia garestia izan zen eta oposizioko sektoreek ez zuten ulertu. Denborak arrazoia eman dit eta, esperientziadun talde batua osatuz, herri honentzat aldaketa nabarmena lortzen ari gara.

“EAJrekin gobernu taldea osatzeko erabakia garestia izan zen eta oposizioko sektoreek ez zuten ulertu”

Sei egunez, jai giroan murgilduko da Itziar

Kopraixak Marixiren jaitsierarekin hasiko dira ofizialki, baina Itziar bezperatik murgilduko da festa giroan, jubilatuentzako ekintzak eta kantu afaria egingo baitituzte, besteak beste, abuztuaren 1ean. Sei egunez luzatuko dira jaiak eta askotariko ekitaldiak egongo dira haur, gazte zein nagusientzat. Hona hemen Itziarko Auzo Udalak, Jai Batzordeak eta beste hainbat taldek eta herritarrek auzolanean prestatu duten egitaraua:

Abuztuak 1, ostirala

Jubilatuen Eguna

12:30 Meza nagusia Itziarko elizan.

Ondoren, ohorezko aureskua dantzatuko zaie aurtengo omenduei, plazan.

14:00 Jubilatuen bazkaria Salegi jatetxean.

Ondoren, aurtengo omenduei oroigarriak emango dizkiete, bertsolarien laguntzarekin.

Jarraian, dantzaldia Elaia eta Jareren eskutik.

19:00 Frontenis txapelketaren finala Zabalsoro frontoian.

21:30 Kantu afaria Donibane elkartearen.

Abuztuak 2, larunbata

10:30 Umeen pilota partidak Zabalsoro frontoian.

16:00 VIII. Itziar Trail.

16:15 Haurren VIII. Itziar Trail.

18:30 JOSELONTXO'S txaranga, Burugorri ostatutik abiatuta.

19:30 Pregoia eta txupinazoa plazan. Marixiri ongietorria, danborrada eta buruhandiak.

23:30 Erromeria OBANEUKE taldearekin.

03:00 DJ TXITXA frontoi zaharrean.

***OHARRA:** Autobus zerbitzua egongo da Debatik.

Abuztuak 3, igandea

07:00 Zezenak.

11:30 Meza nagusia Itziarko elizan.

12:00 Txakolin dastaketa plazan. Ekoizleak: Flysch eta Erlete Goikoa.

13:00 Lierni Osa harri-jasotzailearen erakustaldia plazan.

17:30 Bikoteen arteko XX. dantza solte txapelketa, Jon Ostolaza eta Rakel Pujana trikitilariarekin, plazan.

Ondoren, errekortariak: Oinatz Urbietza, Janitz Arellano, Iosu Valenciano eta Oier Jauregi.

23:00 Kontzertua elizan: **GARI.**



Abuztuak 4, astelehena Helduen Eguna

11:30 Meza nagusia Itziarko elizan.

11:30 JAN DA ERAN txaranga herriko kaleetan.

12:30 Sagardo dastaketa Kalebarrenian.

14:30 Herri bazkaria Zabalsoro frontoian.

18:00 Helduen arteko jolasak, Andutz Dantza Taldearen erakustaldia eta aurrekua plazan.
Ondoren, zezenak.

23:30 ITZAL taldea plazan.

00:30 Play-back lehiaketa plazan.
*Herrikoek ez ezik, beste edonork ere parte hartu dezake (izena emateko: 681 14 97 47. Abuztuaren 1a baino lehen).

Ondoren, ITZAL taldea plazan.



“Musikarik gabe ez legoke festarik, hutsune handia nabarituko litzateke”

XABIER ZUBIKARAI • Jan Da Eran txarangako kidea



Txarangak protagonismo berezia izaten du Kopraixetan. Festei ekiteko prest?

Bai, noski, gogotsu gaude! Festak umorez eta alaitasunez bizi ditugu. Herriko jendea animatu nahian irtengo gara kalera trikitia, panderoa eta dultzaina lagun.

Noiz sortu zenuten taldea? Eta zein da hainbeste urtez bizirik jarraitzeko sekretua?

Duela 47 urte sortu genuen, lagun kuadrilla bat elkartu ginen festei musika jartzeko eta herri txikiko kaleak alaitzeko. Lagun arteko erronka bat izan zen, garai hartan ez zegoelako egungo musika eskaintzarik. Antonio Buenetxea *Txankarta* izan dugu erreferente Itziarren eta berarekin elkartu ginen txaranga sortzeko; hamalau bat lagun ginen. Lehenengo urteetan *Txankarta* soinu handiarekin irteten zen eta gainerakoak turutekin.

Zer-nolako abestiak jotzen dituzue jaietan?

Betiko kantu herrikoiak jotzen ditugu: fandangoak, arin-arinak, kalejirak, dantza lotuak eta kantatzekoren bat ere bai. Trikiti giroko abestiak izaten dira batez ere.

Zer etorkizun ikusten diozue zuen txarangari?

Azken 10-15 urteotan Alejandro eta Itziar taldekideek jarraitu izan ez balute, ez dakit orain zein egoeratan egongo ginatekeen. Haiek emandako bultzadagatik ez balitz, taldea desagertuta egongo litzatekeela iruditzen zait. Zorionez, azken hiruzpalau urteotan jende gaztea gerturatu da eta txaranga osasuntsu dago.

Zure ustez, zer garrantzi dute Jan Da Eran bezalako txarangek jaietan?

Handia. Herrikoak gara eta ez gara profesionalak, baina Kopraixetako hiru egunetan irteten gara. Musikarik gabe ez legoke festarik, hutsune handia nabarituko litzateke.

Abuztuak 5, asteartea

Umeen Eguna

10:00 Umeentzako puzgarriak frontoian.

13:00 Entzierroa gurdiekin, Kalebarrenetik plazara.

14:30 Bazkaria frontoian.

17:00 JAN DA ERAN kalez kale.

17:30 Umeen jolasak plazan.

Jarraian, Andutz Dantza Taldearen dantza erakustaldia.

19:30 Zezenak eta poneyak (16 urtetik gorakoentzat) eta buruhandiak.

20:00 Kantujira eta poteoa, plazatik abiatuta.

Ondoren, ogitarteko jan autogestionatua plazan.

21:00 Erromeria GAUARGI taldearekin plazan.

22:30 Zezensuzkoa Bikain jatetxetik plazara.

Ondoren, erromeria GAUARGI taldearekin plazan.



Abuztuak 6, asteazkena

Gazteen Eguna

10:00 Salvatore Eguneke meza Itziarko elizan.

10:30 Urezko txirrista erraldoia.

11:30 Bizikleta lasterketa Kalebarrenetik abiatuta.

13:00 Gazteen arteko jolasak zezenekin plazan.
Ondoren, zezenak.

14:00 Paella txapelketa.

17:30 JAN DA ERAN txaranga, frontoitik plazara.

18:00 Jolasak, aureskua eta zezenak plazan.

23:30 Kontzertuak plazan: **ASGARTH, DEBRASS BAND** eta **TXOLA ETA POTXOLA DJak**.

07:00 Peto jaitziera eta txokolate jana.



“Festak herritik eta herriarentzat antolatzen dira eta hori da gehien gustatzen zaidana”

IHINTZA IRIZAR • Lizarbe Guraso Elkarteko kidea



Lizarbe elkarteak zer-nolako parte-hartzea izango du jaietan?

Batez ere Umeen Eguna antolatzea da gure eginbarra. Egun osoko egitaraua dugu aurtén. Goizean puzgarriak eta entzierroa gurdiekin izango dira eta, ondoren, bazkaria frontoian. Arratsaldean umeentzako jolasak, Andutz Dantza Taldearen emanaldia, zezenak eta poneyak izango ditugu eta, jarraian, buruhandiak, kantujira eta ogitarteko jana plazan. Gauargi taldearen erromeriarekin eta zezensuzkoarekin amaituko da eguna.

Berritasunik izango al du aurtengo egitarauak?

Berrikuntzen artean, Gazteen Egunerako antolatutak diren urezko txirrista erraldoia aipatuko nuke.

Zenbat jende biltzen zarete elkartearen bueltan?

Elkartearen motorra hamar lagunek osatzen dugu. Urte

osoan zehar gu arduratzen gara ekintzak antolatzeaz, baina Kopraixetan beste zenbait gurasok eta herritarrek ere laguntzen gaituzte.

Nola baloratzen duzue Kopraixen baitan haurrei zuzendutako eskaintza?

Uste dut oso positiboa dela, kontuan hartuta zer nolako herri txikia garen eta baliabideak zeintzuk diren. Umeentzat egun oso bat antolatzen dugu eta beste egunetan ere badute zer ikusia eta ikasia.

Zer nabarmenduko zenuke aurtengo festetatik?

Berriz ere plazara itzuliko garela azpimarratuko nuke. Izan ere, plaza bera da Kopraixen ezaugarri nagusienera bat. Festak herritik eta herriarentzat antolatzen dira eta pertsonalki hori da Kopraixetatik gehien gustatzen zaidana. Bertan sortzen den giroa izugarria da eta belaunaldien arteko harremanak sustatzeko ere balio du.

Mahai baten bueltan agurtu dute ikasturtea mintzalagunek



Zuhatza Euskara Elkartek dinamizatzen duen Mintzalaguna egitasmoa kideek amaitutzat eman dute 2024-2025 ikasturtea. Udan atsedean hartu aurretik, baina, talde ezberdinetako hainbat partaidek afari-merienda egin zuten Zalburdin joan den uztailaren 7an. Adierazi dutenez, "elkarrekin mokadu bat jateko eta tarte atsegin bat pasatzeko" aukera izan zuten hitzorduan.

Ikasturtea urrian abiatu zen eta ordutik asteroko hitzorduak izan dituzte mintzalagunek. Hiru taldetan banatuta —bakoitza bere dinamika eta ordutegiarekin—, guztira 20 bat herritar aritu dira hilabeteotan mintzapraktika egiten. *Bidelariak* eta *bidelagunak* urrian berrekingo diete euskara praktikatzeko saioei.

Aspertzeko denborarik ez Kolorez Blai udaleku irekietan



Ekainaren 30ean hasi eta uztailaren 24an amaitu dira Kolorez Blai euskal udaleku irekiak eta, Zuhatza-Kolore Anitz Aisialdi Taldeko kideen hitzetan, ekimenean parte hartu duten HH5etik LH6ra bitarteko 154 haurrek "asko gozatu dute" asteotan.

Bi txanda egin dituzte aurtien ere, adinaren arabera banatuta. Eta askotariko jarduerak eta jolasak izan dira tartean, gehienak aire zabalean, hala nola *kixki jolasa*, ginkana hondartzan, *Errekafest*, buruhandien kalejira, bingo musikatu edo piraguekin irteera. Besteak beste, Santa Katalinara txangoa egin dute eta orientazio proba bat ere jokatu dute mendian. Halaber, Hernaniko igerilekuetan izan dira.

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27
943 19 14 47
20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

Mikel
ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO

ETA BERRIZTAGARRIAK

Hondartza 10 behea,
20820 Deba
T. 943 191 774
M. 699 975 206
info@mikeliturgintza.eus

Calbeton

JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ENGLISH
SQUARE

SCHOOL
OF ENGLISH

Ondo pasa
San Roke
jaietan!

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206
info@english-square.net

“Eskerrak eman nahi dizkiet urte hauetan guztietan danborrada posible egin duten guztiei”

MANOLO PASCUAL • Danbor nagusia



Abuztuaren 14an beteko dira 25 urte Manolo Pascualek (Deba, 1959) Txema Vitoriaren eskutik danborradako zuzendaritza makila jaso zuenetik. Harrezkero, pandemia garaiko bi urteetan izan ezik, berea izan du urtero-urtero emanaldiak antolatu eta taldea gidatzearen ardura. Ez zuen espero karguan hain bide luzea egiterik, baina, mende laurdeneko ibilbidea betetzear, pozik, hunkituta eta esker oneko agertu da.

Ozio-Biden jarri dute hitzordua Manolo Pascualek eta kazetariak. Lasai dago elkarte gastronomiko historikoa, otorduen eta festen ohiko burrunbatik urrun; *Ozio-Bide 75 urte 1947-2022* liburua mahai gainean jarrita aritu gara berriketaldian. Aurrez ere bada herrian danborrada aipatzen duen idatzirik, baina Ozio-Bideren lehenengoa 1946an izan zen eta Pascualek du ikuskizunaren ardura nagusia 2000tik. Urtemuga aitzaki hartuta, atzera eta aurrera begira jarri dugu danbor nagusia. Urtero hunkitzen bada ere, aurtengoa "berezia" izango dela aitortu du.

Aurten beteko dira 25 urte danbor nagusiaren lekukoa hartu zenuenetik. Nolatan animatu zinen aginte makila hartzera?

Kalean geratu ninduen Txema Vitoriak. Ez dakit lehenago beste norbaitekin hitz egin ote zuen, baina musikaz zekien norbait behar zuten danbor nagusi izateko eta Ozio-Bideko bazkide baldin bazen, hobe. Debako Musika Banda bizpahiru urte lehenago laga nuen, elkarteko bazkide ere banintzen eta nik ez dakit ezetz esaten... Egia esan, gogo handirik ez neukan. Hemezortzi

bat urte egin nituen bandan eta leku ugaritako danborradetan parte hartzen genuen (Deban, Mendaron, Donostian...), ez danborra jotzen, musikari gisa baizik. Baina, tira, Txemak lekukoa hartzea proposatu zidan eta, ez dakidanez ezetz esaten, aldaketa 2000. urtean egin genuen. 2001etik nabil zuzendari lanetan.

Nork aukeratzen du danbor nagusi berria? Zeintzuk izaten dira izendapenerako urratsak?

Nire kasuan ez zen prozedura zehatzik izan, Txemak aukeratu ninduen. Danbor nagusia izan zen, lehenago bere aita Isidro izan zelako, salbuespenen batean izan ezik (heriotza bat tarteko). Txemak 36 urte egin zituen aginte makilarekin, nekatuta egongo zen ordurako eta erreleboa nahi zuen. Egia esan, ez dakit oso ondo nolakoa izan zen prozesua elkarte barruan; gaia zuzendaritza batzordean aipatuko zutela pentsatzen dut, baita danborradako kideen artean ere ziur aski. Bandako beste kide batzuk ere Ozio-Bideko bazkide ziren garai hartan eta danbor nagusi izateko profil egokia (musika ezagutzak, adina...) nork izan zezakeen aztertuko zuten. Ez dut uste danborradako inor lekukoa hartzeko prest zegoenik... eta ni animatu nintzen.



Zeintzuk dira danbor nagusiaren zereginak?

Kanpotik ikusten den bezala, egunean bertan zuzendari lanetan jardutea eta danborradaren buru izatea da nire eginkizuna, baina garrantzitsuenak danborrada antolatzea izaten da. Antolakuntza lanetarako danbor-joleen batzorde bat daukagun arren, guztia kontrolatzen duena eta gainean egoten dena ni izaten naiz. Lehen Txema arduratzen zen, elkarteko eta danborradako kideen laguntzarekin, eta Pedro Alustiza zenak ere asko laguntzen gintuen.

Zenbat kide ditu gaur egun danborradak?

50 inguru izaten gara taldean: 17 barril, 15 danbor, 20-25 panderojole, banderaduna, gidoia (Debako armaria daramana) eta ni danbor nagusi lanetan.

Ekimen irekia da? Nork parte har dezake?

Printzipioz bai, betiere plaza libreak badaude, baina Ozio-Bideko bazkideek lehentasuna dute. Eta parte hartu nahi duen bazkiderik ez badago, partaideak Debakoak izatea lehenesten dugu, herriarekin nolabaiteko lotura bat izan dezaten. Idatzi gabeko araua da, baina errespetatu egiten dugu; lehen hala egiten zuten eta gaur egun ere hala egiten jarraitzen dugu.

“2012an oraindik ere emakumeak ez ziren Ozio-Bideko bazkide, hori orain dela lau urte aldatu zen. Baina tira, baldintza beretan sartu behar ziren danborradan”

Noiz hasten zarete prestaketa lanetan?

Sanferminak bukatu ondoren hasten naiz guztia antolatzen. Whatsapp taldean galdetzen dut zenbat jende izango duen, beti baitago arrazoi ezberdinengatik kale egiten duen norbait... Kasu horietan, danborradan parte hartzeko plaza hurrengo urterako gordetzen zaio; behin eta berriz uko eginez gero, aldiz, plaza hori libre geratzen da, beste norbaitek sartzeko aukera izan dezan.

Deialdiak egiten dituzue jendeak izena eman dezan?

Ez. Danborradan jotzeko interesa duenak nigan jotzen du zuzenean eta ni zerrenda bat osatzen hasten naiz. Danbor-jotzaileen kopurua finkoa da, adibidez, ez



“Debako martxa’ plazan jotzen dugun bakoitzean hunkitu egiten naiz, bai edo bai. Dena da berezia... Oilo ipurdia jartzen zait”

“Jendea egon badago eta hori positiboa da. Baina, maila pertsonalean, ordezkoko bila hasi behar naizela pentsatzen ari naiz”

daukagulako danbor gehiago. Panderojoleen kopurua aldatuz joan da, batzuetan 27 ere izan dira, baina niretzat kopuru aproposena 20 eta 25 artekoa da.

Ikusmira sortzen dute zuen entseguak... Zehaztu al dituzue aurtengo hitzorduak?

Entseguak festen aurreko astean izaten dira; aurtun abuztuaren 4tik aurrera egingo ditugu. Kultur Elkartean biltzen gara, 20:00etan. Hiru saio egiten ditugu abuztuaren 14ko danborrada prestatzeko eta beste hainbeste festen azken eguneko emanaldia prestatzeko; egunen arabera bereizten ditut entseguak, hilaren 14an eta 18an ez baitira partaide berdinak irteten danborradan. Saio horiez gain, azken egunean entsegu orokorra izaten dugu bandarekin, aukera dagoenean eta zezen-plaza muntatuta dagoenean.

Zenbat abesti ditu erreperitorioak?

Sorozabalen bi pieza (*Debako martxa* eta *Ozio-Bide Polka*) eta Sarriegiren beste hiru dauzkagu (*Diana, Tatiago* eta *Iriarena*). Bestalde, Jose Ignazio Ansorenak Txemari eskaini zizkion bost abestiak ere interpretatzen ditugu (*Mami, Plaza Zaharra, San Roke, Txitxarritoak* eta *Anguleroak*). Eta, gainera, *Fefe* Urainek sortutako Amairkak-Baten ereserkia ere jotzen dugu plazatik irteteko.

Zein da abestirik kuttunena zuretzat?

Debako martxa, dudarik gabe. Kanta hori plazan jotzen

dugun bakoitzean hunkitu egiten naiz, bai edo bai. Dena da berezia: giroa, lekua, eguna... Oilo ipurdia jartzen zait.

Eta danborradako momenturik hunkigarriena?

Ba esango nuke *Debako martxa* plazan jotzen dugun une hori izaten dela: udaletxean banderak astintzen, jendea saltoka... horrek hunkitzen nau gehien. Abestia jotzen eta dena ondo atera dadin saiatzen zara, baina urtero-urtero *subidoi* handia da niretzat eta hori ez da aldatzen.

Gauza batzuk aldatu dira 25 urte hauetan; emakumeen parte-hartzea, adibidez. Aurretik ere urteak zeramatzaten panderojole, baina elkarteak 2012an erabaki zuen danborradan emakumeei danbor-jotzaile moduan sartzen lagatzea. Zelan ikusi zenuen aldaketa?

2012an oraindik ere emakumeak ez ziren Ozio-Bideko bazkide, hori orain dela lau urte aldatu zen. Baina tira, baldintza beretan sartu behar ziren danborradan. Gai pertsonala izan zen niretzat, baita beste batzuentzat ere. Urte batzuk neramatzan danborrada zuzentzen eta pauso hori eman ezean kargua uzteko asmoa nuen. Egia esan, uste nuen arazo gehiago egongo zirela, baina gero erraza izan zen dena; batzarrean proposatu nuen eta batzarrak onartu egin zuen. Argi nuen hori aldatu egin behar zela eta aldaketa ematen ez bazen,



erreleboa beste norbaiti pasatzeko asmoa neukan. Erronka pertsonala izan zen eta uste dut bazela garaia; berandu iritsi ginen, baina lortu zen.

Bestelako aldaketa garrantzitsurik izan al da mende laurden honetan?

Iaz mutiko bat sartu zen lehen aldiz danborradan panderoa jotzera; danbor-jotzailea zen alde z aurretik eta iaz aldatzea erabaki zuen. Dena dela, oraindik ez da beste mutilik etorri panderoa jo nahi duela esatera...

Atzera begira jarrita... 25 urte eta ehunka anekdota?

Badira batzuk, bai. Abuztuaren 14an elkartean afaltzen dugu, baina bertan ez gara guzti-guztiok batzen eta beti egoten da "despistaturen bat". Azken entsegu egunean prest uzten dugu dena (norbere galtzak, kasaka, kapela, polainak...), hilaren 14an afaldu eta berehala irteteko danborradara. Baina behin baino gehiagotan gertatu da afaltzen egon ez den kideren bat azken orduan agertzea, irteteko prest gaudenean, polainak lapurtu dizkiotela, kapela aldatu egin diotela edo beste zerbait esanez... Aita baten pare ibiltzea tokatu izan zait, bai, falta dena agertzen ote den begiraten... Elkartean afaltzen dutenak "kontrolatuago" izaten ditugu, baina beste batzuk ba... ezin! (*kar-kar*). Gogoratzen dut beste behin *Ozio-Bide Polka* jo ondoren errepidera irten behar ginela eta, ez dakit zer

gertatu zen, baina Pedro Alustizak estropezu egin eta txilinbuelta ederra egin zuen danborraren gainetik pasata... danborrada guztia barrez lehertzen, noski!

**Jendartea aldatzen da, baina tradizioak pisu handia du oraindik ere. Nola iruditzen duzu danborrada-
ren etorkizuna? Eta zurea?**

Jendea egon badago eta hori positiboa da. Baina, maila pertsonalean, 25 urteren ondoren ordezkoi bila hasi behar naizela pentsatzen ari naiz. Oraingoz ez dut utziko danborrada, baina 66 urte egingo ditut aurtien eta osasunez ondo nagoen arren, urteak azkar pasatzen dira. Dagoeneko badaukat ordezkoi bat buruan...

Beste zerbait gehitu nahi duzu, Manolo?

Bai. 25 urte daramatzat danborrada antolatzen eta koordinatzen eta eskerrak eman nahi dizkiet urte hauetan guztietan danborrada posible egin duten guztiei. Baina ez ditut azken 25 urteak bakarrik nabarmendu nahi; 1946tik gaur egun arte hemendik pasa den jende guztia gogoratu nahi nuke, haiengatik ez balitz danborradak ez lukeelako bizirik jarraituko. Nire atzetik beste bat etorriko da eta ea hark ere urte asko egiten dituen danbor nagusi lanetan. Baina hau talde lana da azkenean, norbaitek koordinatu eta zuzendu dezakeen arren, laguntzen duen jenderik gabe... Nik bakarrik ezingo nuke.

San Roke jaiak

argazki zaharrak



Argazki oinak: ALEXTURRILLAS ARANZETA

Sarri askotan, zezen ikuskizunekin lotzen dira Debako jaiak. Eta, hain zuzen, beren pisua izan dute eta dute oraindik ere. Zezena ez da izan, ordea, protagonista nagusi bakarra eta horren erakusgarri dira irudi hauek. Lehenengoa 1930eko hamarkadan, seguruenik abuztuaren 15ean (Ama Birjinaren egunean), zezen-plazan ospatutako zirku-emanaldi ikusgarri bati dagokio. Sei emakume trapezista ikus ditzakegu bertan eta, erakustaldiaren arriskuaz jabetuta, badirudi arnasari eusten diola publikoak.



Argazki hauetan ikusten den bezala, jende ugari batzen zen San Roke festetan itsasadarrean egiten ziren ur-kirol txapelketetan eta bestelako ekintza ludikoetan. Goiko irudia portuko arrapalaren ondoan atera-ta dago, 1920ko hamarkadan. Bertan, ikuslez inguratuta agertzen dira kukaña txapelketan parte hartzeko prest dauden herritarrak —bainujantzian—. Koipeztatuta egoten zen mastaren amaieraraino iristea lortzen zuenak muturrean zintzilikatutako saria eskuratzen zuen.



Batel estropadak ere ohikoak izaten ziren sanrokeetan. Izugarrizko bizia ematen zioten itsasadarrari; joan den mendeko hogeigarren hamarkadan egindako argazkia begiratu besterik ez dago. Arraunak altxatzen agertzen dira lehian parte hartzen ari ziren herritarrak, eta ikuslerik ez da falta. Irudiaren eskuinaldean, arrapalaren ondoan, materiala kargatzeko erabiltzen zuten goleta txiki bat ikus daiteke, belak jasota.

“Hondartza ederra daukagu Deban, baina arreta handiz zaindu behar da, bere ezaugarriengatik”

ALEJANDRO MORCILLO ETA AIORA ANTOLIN • Sorosleak



Irailaren 15era arte, Debako hondartzako erabiltzaileen segurtasuna bermatzea izango da Alejandro Morcilloren (Deba, 2004) eta Aiora Antolinen (Durango, 2004) eginbeharra; lehenengoak hirugarren denboraldia du Deban eta Antolinek, aldiz, bigarrena. Beste lauzpabost kiderekin batera osatutako sorosle taldearen eguneroko jardunaz eta hondartzaren ezaugarriez nahiz arriskuez aritu gara elkarrizketan.

Ekainaren erdialdean abiatu zuten Deban hondartzako denboraldia eta Santiagon nahiz Laparin prebentzio, salbamendu eta sorospen zerbitzua eskaintzen diharduen sorosle taldeko kide dira Antolin eta Morcillo. Hondartzaren berezitasunez, sorosleen eguneroko lanaz, larrialdi kasuei aurre egiteko baliabideez eta prebentzio neurriez hitz egin dute solasaldian.

Zertan oinarritzen da zuen eguneroko lana?

Aiora Antolin: Goizean goiz hondartzara iritsi eta egoera orokorra aztertzea izaten da lehenengo eginbeharra: bainurako gomendioen arabera bandera jarri, komunikazio ekipoak eta botika-kutxa prestatu eta hondartzaren inguruak ere aztertzen ditugu, arriskurik ote dagoen ikusteko. Egun osoan bainularien segurtasuna bermatu eta jendeak arauak betetzen dituela egiaztatzen dugu eta edozein larrialdiren aurrean azkar erantzuteko prest egoten gara. Horrez gain, gure lana da galdutako haurrei laguntzea edota itsasoaren egoerari buruzko informazioa ematea. Eta, bestalde, zaurituak ere artatzen ditugu, lehen sorospenak ematen baititugu anbulantzia iritsi arteko denbora tartean. Prebentzioa da lanaren alderdiri garrantzitsuena, baina argi dago eguraldiak eta olatuek asko baldintzatzen dutela gure lana.

Alejandro Morcillo: Bestalde, lagundutako bainuaren zerbitzua ere eskaintzen dugu, mugikortasun murriztua duten pertsonen ere itsasoaz eta hondartzaz beste guztiok bezala goza dezaten.

Zer garrantzi du talde lanak? Zenbat kide zarete eta nola koordinatzen duzue lana?

A.A.: Normalean, 6-7 sorosleak osatzen dute lantaldea. Eta talde lana funtsezkoa da, bai, egoerak azkar konplikatu daitezkeelako. Gure artean walkie-talkie bidez komunikatzen gara etengabe eta bakoitzak badaki zein den bere eginkizuna larrialdi baten aurrean. Aurretik entrenamenduak eta simulazioak egiten ditugu, koordinazioa ahalik eta eraginkorrena izan dadin.

Nolakoa da Debako hondartza sorosle baten ikuspegitik? Zer berezitasun ditu?

A.M.: Hondartza ederra daukagu Deban, baina arreta handiz zaindu behar da, bere ezaugarriengatik. Hondartza dinamikoa da. Mareek, esaterako, eragin handia dute gure lanean; itsasgoran, adibidez, bainularien eta surfilarien arteko espazioa estutu egiten da eta horrek tentsio egoerak sor ditzake haien artean; itsasbeherarekin, berriz, azalera handiagoa zaindu behar dugu, bainulariak urrunago sartzen direlako. Horrez gain, hondartzak baditu arriskutsuagoak diren eremu batzuk ere, hala nola zulo sakonagoak edo korrante in-



dartsuak sor daitezkeen guneak, eta horiei arreta berezia eskaini behar izaten diegu. Bestalde, jende asko pilotzen denean, zaintza eta prebentzioa are garrantzitsuago bihurtzen dira, jende askok ez baitaki arrisku txiki bat nola bihur daitekeen larri segundo gutxian. Debako hondartzak lan egiteko testuinguru polita eskaintzen du, baina etengabeko arreta eskatzen du.

Gaur egun nolako kasuak izaten dituzue, bereziki?

A.A.: Beroaren eraginez lipotimia ugari izaten dira. Marmoken eta xabiroien edo salberen ziztadak ere ohikoak dira udan eta, hondartzan jende asko dabilenean, umeak sarritan galtzen dira. Haitz artean dabilzanek, bestalde, ebakiak egiten dituzte maiz. Eta, era berean, zorabioak ere izaten dira tarteka, batez ere adinekoen artean edo gehiegizko esfortzu fisikoaren ondorioz. Noizbehinka erreskateak egin behar izaten ditugu, bainulariak korronteak harrapatuta geratzen direnean edo norbaitek uretan osasun arazoren bat izaten duenean.

Larrialdiei aurre egiteko zer baliabide dituzue eskura?

A.M.: Gure lana ahalik eta azkarren eta segurtasunez egiteko hainbat tresna ditugu. Adibidez, gure artean walkie-talkie bidez komunikatzen gara eta jendeari oharrik emateko megafonia daukagu. Uretan erreskateetan laguntzeko hegatsak eta ekipamendu berezia

“Prebentzioa da lanaren alderdirik garrantzitsuen, baina argi dago eguraldiak eta olatuek asko baldintzatzen dutela gure lana”

baliatzen dugu eta lehorrean beti izaten ditugu prest lehen sorospentarako botikina eta desfibriladorea. Horrez gain, arnasketa artifizialerako maskarak, lepoko zerbikalak edota manta termikoak ere badaude. Bestalde, ohol handi bat eta uretako motorra ere baditugu eta horiek asko errazten dute gure lana.

Norbait larri edo estutasun batean ikusiz gero, besteok zer egin dezakegu laguntzeko?

A.M.: Garrantzitsua da lasai eta arduraz jokatzea, eta berehala sorosleei abisatzea edo hurbilen dagoen postura joatea. Inguruan soroslerik ez badago eta egoera larria bada, 112ra deitu behar da laguntza eskatzeko. Ez da komeni erreskate prestakuntzarik gabe uretara salto egitea, arrisku handia baitago. Horren ordeztu, ahotsa erabiliz edo seinaleak eginez eskatu daiteke laguntza.

Uztaila / Abuztua / Iraila

Uzt. 28 (ASTELEHENA)

ENTSEGUA
19:00 Umeen Eguneako danborrada prestatzeko. Ifar kaleko Luzaro eskola.

ERAKUSKETA
'Gerizpearen hutsunea'. Ariana Rac artista bisuala Uztailaren 31ra arte. Klaustroa.

ABU. 1 (OSTIRALA)

ODOL-EMATEA
16:30-20:30 Txanda eskatzeko: gotatanta.eus edo 623 91 23 03. Luzaro ikastetxea.

ABU. 1-6

ITZIAR KOPIAIAK
Egitarau osoa ale honetako 16-18 orrialdeetan.



ABU. 2 (LARUNBATA)

MERKATU TXIKIA
09:00 Paseo estalia.

ELKARRETARATZEA
12:00 Euskal presoen eta iheslarien giza eskubideen alde. Hondartza.

VIII. ITZIAR TRAIL
16:00 Mendi lasterketa. Zabalsoro frontoia.
16:15 Haurren Itziar Trail.



42. UDAKO KONTZERTUAK
20:00 Jesus Martin Moro organista eta Gure Kai dantza taldea. Santa Maria eliza.



ABU. 4 (ASTELEHENA)

ENTSEGUA
19:00 Umeen Eguneako danborrada prestatzeko. Ifar kaleko Luzaro eskola.



ABU. 7 (OSTEGUNA)

ENTSEGUA
19:00 Umeen Eguneako danborrada prestatzeko. Ifar kaleko Luzaro eskola.

42. UDAKO KONTZERTUAK
20:00 Garikoitz Mendizabal txistularia eta Josu Okiñena pianista. Santa Maria eliza.

ABU. 9 (LARUNBATA)

BINILO PINTXADA
12:00-15:00 / 19:00-01:00 Zumardiko kioskoa.



ABU. 11 (ASTELEHENA)

ENTSEGUA
19:00 Umeen Eguneako danborrada prestatzeko. Ifar kaleko Luzaro eskola.

ABU. 14-18

SAN ROKE JAIK
Informazio gehiago: berriketan.eus

ABU. 21 (OSTEGUNA)

42. UDAKO KONTZERTUAK
20:00 Aralar Quartet. Santa Maria eliza.

ABU. 28 (OSTEGUNA)

42. UDAKO KONTZERTUAK
20:00 Jone Martinez sopranoa eta Itxaso Sainz de la Maza pianista. Santa Maria eliza.



ABU. 29 (OSTIRALA)

ELKARRETARATZEA
19:30 Euskal presoen eta iheslarien giza eskubideen alde. Foruen Plaza.

IRA. 3-6

ANIMADEBA FESTIBALA
Informazio gehiago: berriketan.eus



ZAINTZAKO BOTIKA Egunez (09:00-22:00)
ZALDUEGI
Abu. 8, 9, 10, 18, 19, 20, 21 / Ira. 5, 6, 7, 15, 16, 17, 18.
BURGOA
Abu. 4, 5, 6, 7, 22, 23, 24 / Ira. 1, 2, 3, 4, 19, 20, 21.
Larunbat goizetan beti bat irekita (09:30-13:00)
BURGOA Abuztuak 2, 23, 30 eta irailak 20, 27.
ZALDUEGI Abuztuak 9, 16 eta irailak 6, 13.

OHIKO ORDUTEGIA
Astelohenetik ostiralera (09:00-13:45 / 16:30-19:30)
Guardia egunetako igandeak eta jaiegunak (11:00-13:00)
Itziar botikina (09:00-12:30)
BURGOA 667 33 88 90
ZALDUEGI 669 26 22 01

IRA. 6 (LARUNBATA)

MERKATU TXIKIA

09:00 Paseo estalia.



ELKARTASUN AZOKA

11:00 Kooperazio
Taldearen ekimenez.
Udaletxe azpiko arkupeak.



IRA. 7 (IGANDEA)

MENDI IRTEERA

07:30 Ezkabako ihesa
(4. etapa): Bizkarreta-
Urepel. Paseo estalia.



ELKARTASUN AZOKA

11:00 Kooperazio
Taldearen ekimenez.
Udaletxe azpiko arkupeak.

IRA. 10-14

LASTURKO SAN NIKOLAS JAIAK

Informazio gehiago:
berriketan.eus.



IRA. 11 (OSTEGUNA)

BERTSO SAIO ELEKTRONIKOA

19:30 Ondargain.

IRA. 12 (OSTIRALA)

KULTUREKIN

20:00 Umorezko
bakarrizketa: 'Nortasun
agiria' (Zuhaitz Gurrutxaga).
Kultur Elkarte.



IRA. 13 (LARUNBATA)

KALE MARGO LEHIAKETA

10:00 Haitz Haundiren
ekimenez.

IRA. 15 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.



BILERA

18:00 Eskola kirolaren
aurkezpen bilera.
Kultur Elkarte.

IRA. 26 (OSTIRALA)

ELKARRETARATZEA

19:30 Euskal presoen eta
iheslarien giza eskubideen
alde. Foruen Plaza.

IRA. 27 (LARUNBATA)

EUSKAL JAIA

Egun osoko egitaraua.



IRTEERA GIDATUAK

Geoparkea

Informazio gehiago:
geoparkea.eus

Eskualdeko agenda

MALLABIA

ANDRA MARI JAIK

Abuztuak 14-16

ELGOIBAR

SAN BARTOLOME JAIK

Abuztuak 23-30

EIBAR

ARRATEKO JAIK

Irailak 7-8

ERMUA

FOLKEZ BLAI JAIALDIA

Irailak 11-14

Ache Pa Ti, Harribitxi,
Milladoiro, Antia Caaveiro,
Entos, Gorrondatxe,
Anton Lago eta Xose Liz...
Doan.

MUTRIKU

GALBAIXO JAIK

Irailak 13-16

MENDARO

GARAROCK JAIALDIA

Irailak 20 (larunbata)

17:30etik aurrera

Arima Soul, Bobbi Relac,
Silitia, Pinpilinpussies,
EzEzEz eta Los Chicos.
Garagartza plaza. Doan.




ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 ordur) / 635 756 295 / 629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.




SUJIKO

Nola jolastu?

Denbora-pasa matematiko honen helburua lauki-sarean 1etik 9ra bitarteko zenbaki guztiak kokatzea da, bat ere errepikatu gabe. Zirkulu bakoitzaren inguruan dauden lau zenbakiaren baturak zirkulu barruan agertzen den zenbakiaren balio bera izatea lortu behar dugu. Zorte on!

Erantzuna:





MIKEL IÑIGUEZ
DENTAL STUDIO

ODONTOLOGIA DIGITALA

INPLANTOLOGIA

PERIODONTZIA

AHO KIRURGIA

AHO-ERREHABILITAZIOA ETA ESTETIKA

SEDAZIO KONTZIENTEA

CBCT 3D TEKNOLOGIA

RPS: 81/25



WWW.INIGUEZDENTALSTUDIO.COM

 INIGUEZ_DENTALSTUDIO

KALEBARREN PLAZA 4W. BEHEA / 20870 ELGOIBAR

 616 68 03 11

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95 


ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

Taxi Alain
Zure zerbitzurik onena



636 135 008 • www.taxideba.eus

 **ENDAÑETA**
muebles altzariak

Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria
3000m²

Itziariko gain
T.: 943 19 91 00
F.: 943 19 91 01
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)
endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com



ORAIN
ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba



SUKIA
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)


Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576
20820 DEBA



Deba
Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20
20820 Deba, Gipuzkoa info@debaklinika.com
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
Kirurgia
Implanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako
aukera ere eskaintzen dugu.

Uzuri
optika audio



**PILARIK GABEKO
AUDIFONOAK
PROBATU
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92

RPS: 183/12



SURF SHOP & SURF ESKOLA

Haur, gazte eta helduentzako **surf ikastaroak**,
hastapenetik hasi eta hobekuntzaraino.
Maila guztietarako **materialaren alokairua**
eta **aholkularitza profesionala**.



Hondartza kalea 20 - DEBA

688 743 863

eskola@yakosurf.com | denda@yakosurf.com

PAUSO

PODOLOGIA KLINIKA

Kiropodia, plantillak,
azterketa biomekanikoa,
kirurgia, kirol podologia,
oin diabetikoa...

943 01 49 05 - 747 43 48 52
Astillero kalea 2 behea, Deba

